

PRENTSA OHARRA

DEMANDAREN EMAITZA ETA LEGEBILTZARREKO AGERRALDIA

Uztailaren bian, jakina denez, Laudioko Udaleko arduradunek Udal Hiltegiaren zerbitzuaren amaiera erabaki zuten, Nerbioi ibaira ustez egindako isurketa batean oinarrituta. Arduradun horietako batek, gainera, dagokion salaketa jarri zuen polizia autonomikoaren kuartelean.

Amaitu berri dugun azken aste honek salaketa honen ondoriozko epaiketaren emaitza ekarri digu, eta emaitza ezin argiagoa izan da. **Ezetsi egin da. Hau da, epaileak ez du ustezko isurketa horren zantzurik ere aurkitu.**

Epai honek, zalantzarik gabe, udalaren bilakaera judiziala baldintzatuko du datozen hilabeteetan, isurketarena izan baita hiltegiko zerbitzua eteteko argudio giltzarria. Horren ondoren, litekeena da Laudioko Udalak epaiketa gehiago eta kalte-ordain oso garrantzitsuak egin behar izatea hiltegiaren azken kontrata kudeatzailearekiko. Horri gehitu beharko genioke zerbitzurik eskaini ez duen baina lizitazioa aktibo mantentzen zen aldiak sartzeari utzi diona.

Bestalde, hilaren 22an, Hiltegia Ez Itxi plataformako bi kidek agerraldia egingo dute Gasteizko Legebiltzarrean, eta bertan azalduko dute, beste behin ere, Udal Hiltegia ixteak dakarren zentzugabekeria eta baserritarrentzat eta saltoki txikientzat dagoeneko izaten ari den ondorioak, oraingo honetan erabaki judizialek indartuta.

Bitartean, Gabonetako kanpainan, baserritarrek eta saltoki txikiek ehunka kilometro egin behar izaten ditugu gure jarduerarekin jarraitu ahal izateko. Errepidean Km0 kontzeptua galtzen ari gara gure administrazioen pasibotasunaren aurrean.